

14. FITXA Munduko Ondare izendatutako ondasunak kontserbatzeko, babesteko eta zabaltzeko proiektuetarako 2024. urteko laguntzak

Nori zuzendua: UNESCOk edozein kategoriatan Munduko Ondare izendatutako ondasunak beren lurralde eremuan kokatuta dituzten toki-erakundeak, baldin eta ondasun horiek UNESCOren deklarazio-espeditentean edo Munduko Ondarearen Batzordeak onartutako kartografian berariaz jasota badaude; proiektuak aurrera eraman ditzaketen eta laguntza hauek eskatzen dituzten nortasunik gabeko erakunde publikoen elkarteak.

Sarbide-esteka: [Munduko Ondare izendatutako ondasunak kontserbatzeko, babesteko eta zabaltzeko proiektuetarako laguntzak | Kultura Ministerioa](#)

Erreferentziazko araudia: [Kulturako Estatu Idazkaritzaren 2024ko apirilaren 8ko Ebazpenarena laburpena. Ebazpen horren bidez, Munduko Ondare izendatutako ondasunak kontserbatu, babestu eta zabaltzeko proiektuetarako 2024ko laguntzetarako deialdia egiten da.](#)

Eremuak: Kultur ondarea

Zenbatekoa: 500.000 €

Aurkezpen amaiera data: 2024/05/20 (14:00etan)

Laburpena

Munduko Ondare izendatutako ondasunak kontserbatzeko, babesteko eta zabaltzeko proiektuetarako laguntzen helburua ondasun horiek babesteko eta kontserbatzeko proiektuak garatzen laguntzea; eta irisgarritasuna, ikusgarritasuna eta zabalkundea bultzatzea da, bai estatuan, bai nazioartean.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- a) Munduko ondare izendatutako ondare-elementuak babesten laguntzen duten prebentziozko kontserbazio-jarduerak, hala nola:
 - Larrialdi-kasuetan babes-planak egitea.
 - Ondare Eraginaren Ebaluazioak egitea, Munduko Ondare Zentroak egindako eskuliburuen arabera.
 - Bisitariak kudeatzeko azterlanak egitea, hala nola karga gaitasunari buruzko azterlanak,

bisitari-fluxuak eta abar.

— Prebentziozko kontserbaziorako beste jarduerak batzuk.

- b) Kudeaketa-planak edo/eta horien aurretiazko azterlanak idaztea, Munduko Ondare Zentroak banakako nahiz serieko ondasunetarako egindako eskuliburuen arabera.
- c) Leku bat Munduko Ondarea dela identifikatzeko eta Aparteko Balio Unibertsalari buruzko informazioa emateko oroitzapenezko plakak eta seinaleztapen-elementuak jartzea.
- d) Munduko Ondarearen Konbentzioarekin eta Espainian Munduko Ondare izendatutako ondasunekin zerikusia duten gaiei buruzko azterlanak egitea.
- e) Munduko Ondareari buruzko topaketak, mintegiak eta kongresuak antolatzea, euskarri digitala barne, Espainiako Munduko Ondarearen ondasunak, zein Munduko Ondarearen Konbentzioa aplikatzearen ondoriozko balioak, mekanismoak eta tresnak ezagutarazteko.
- f) Munduko Ondarearen Konbentzioa eta haren balioak haurren eta gazteen artean zabaltzeko eta ezagutzeko jarduerak egitea.
- g) Munduko Ondarearen Konbentzioari eta Munduko Ondarearen Zerrendan sartutako ondasunei buruzko informazioa ematea xede duten argitalpenak prestatzea
- h) Munduko Ondarea hobeto ezagutzeko erakusketak eta bestelako zabalkunde-ekintzak antolatzea.
- i) Espainiako Munduko Ondarearen prebentziozko kontserbazio, babes, seinaleztapen, hedapen eta irisgarritasuneko jarraibideak eta ereduak indartzen laguntzen duen beste edozein jarduera.

Gastuetarako aldi hautagarria

Laguntzek 2024ko urtarrilaren 1etik 2025eko ekainaren 15era bitartean garatzen diren jarduerak finantzatzeko dituzte.

Laguntzen zenbatekoa

Proiektu **bakoitzak gehienez ere 50.000 eurora** arteko laguntza jaso ahal izango du, eta inola ere ezin izango dute jardueraren kostuaren **% 85** gainditu, **10.000 eurotik** beherako kostua duten proiektuak izan ezik, betiere eskatutako gutxieneko puntuazioa lortzen badute.

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko jardueraren edo proiektuaren **gutxieneko kostua 5.000 eurokoa** izango da.